

JAUZARREAK antolatuz, heldu den maiatzaren 18an ATLANTIAR Paleolitoa biltzarra eginen da Irungo Ficoba auditoriumean. Nazioarteko eta Euskal Herriko aditu sorta batek 14 hitzaldi emanen ditu, gaur eguneraino euskal herri gisa osaturik iritsi den *Homo sapiens* taldeari buruz. Duela 45.000 urte baino gehixeagotik hona, Bizkaiko Golkoaren inguruan kokaturik dagoen euskal kulturaren inguruko lan-jardunaldia izanen da, arlo askotatik begiratuta: genetika, historia, arkeologia, artea, folklorea eta linguistika.

NAZIOARTEKO BILTZARRA



GIZA ARRASTOA EUROPAKO ERTZ ATLANTIKOAN
BIZKAIKO GOLKOAREN INGURUKO LURRALDEAK PALEOLITOA
antolatzailea:



euskal kulturaren azterketa eta zabalkunderako funtsa fondo para el estudio y difusión de la cultura vasca fond pour l'étude et la diffusion de la culture Basque fund for the study and dissemination of Basque culture
atlantiar@jauzarrea.net www.jauzarrea.net

JAUZARREA, lan talde finkatua. Txoria Errekan argitaletxearen egoitza Jauzarrea da (Arraiotz) eta, 1984tik hona, 200etik gora argitalpen plazaratu ditu Euskal Herriaren kultur ondareari buruz. Xabi Otero da haren arduraduna eta, zeregin horren ondorioz, bi gauza bururatu zaizkio: erakunde iraunkor bat sortzea, JAUZARREA –Euskal Kulturaren azterketa eta zabalkunderako funtsa, alegia– eta, aldi baterako proiektu bat garatzea, hots, ATLANTIAR, euskaldunen historiari buruzko ezagutzarik eguneratuena biltzeko tresna egokia delakoan.

Aurrekariak.

Xabik honela azaltzen du proiektuaren sorrera: “1972tik hona, nire lanbidean aritu naiz eta, horri esker, adiskidantza sendoa dut lan egin dudan jende aunitzekin. Gai franko eta era askotakoak landu behar izan ditut, eta horrek gai aunitzi buruzko ezagutza bat biltzeko aukera eman dit; bada, ezagutza horrek bi alde ditu, biak ere zinez interesgarriak. Batetik, ikaskuntza-prozesuak ikuspegi orokor eta osoa eman dit loturak eta elkarreaginak ezartzeko, bai eta, horren bidez, munta handiko zabalkunde-proiektu bat abiarazteko ere; proiektua ATLANTIAR da, alegia.

Bestetik, egin ditudan harremani esker, egitasmoaren inguruan jende asko bildu dut, guztiak ere jakintza handikoak eta JAUZARREA proiektuari berme zientifikoa eman diotenak, TXORIA ERREKAN argitaletxearen inguruan; gizon-emakume horiek, izan ere, jakintza handia bildu dute gizakiaren hainbat alderdiren inguruan, eta lehen eskuko informazioa daukate, haiek berek egindako ikerketen ondorioz.

Osagai horietan oinarriturik, beraz, proiektuaren inguruan nire inguruko jende talde gaitu bat bildu dut, artistak, ikertzaileak, materia berrien sortzaileak, hainbat arlotako kudeatzaileak, profesionalak. Guztiak ere sortzaileak, gure gizartean dagoen lanbide sorta zabalaren erakusgarri;

bizipozez diharduen jendea da, eta guztiek ere halako manera berezi bat dute gure etorkizunari elkarrekin aurre egiteko, eta, ahal den heinean, kultur berrikuntza landuz, gainera.

Gogo biziko jende bikaina da; horrexegatik dira JAUZARREA erakunde iraunkorraren eragileak, erakundea euskal kultura Euskal Herritik bertatik aztertzeo eta zabaltzeo funts bat den neurrian.

JAUZARREAK kudeaketa-eredu egokia dauka

Kultura gizartean bizitasunez eta eraginkortasunez zabaltzeo. Ezagutza bultzatzeko, kulturaren gaineko pertzepzioa hobetze aldera; gizarte-harremanetan eragina duten kontuetan, batez ere. Kulturen arteko loturak sortzeko, ondare materialaren eta ez-materialaren arloetan jarduerak konbinatzeko, euskaldunen kultura aztertu, ikertu eta zabaltzea sustatuta, eta, kultura horrek beste herri indigena batzuenarekin duen harremanaren azterketa, ikerketa eta zabalkundea bultzatuta.

ATLANTIAR programan euskaldunon historiari buruzko lau biltzar sartzen dira, eta 2012an eta 2013an egingen dira. Haietako bakoitzak historia-aldi bat aztertuko du, hainbat diziplinatatik ikusita: PALEOLITOA, duela 45.000 urtetik Magdaleniarraren bukaeraraino.

GIZARTE EKOIZLEAK, Neolitotik Burdin Aroaren bukaeraraino. ARO BERRIA, prerromatar baskoien garaitik 1512an Gaztelako eta Aragoiko koroen armadak Nafarroako Erresuman indarrez sartu ziren arte. ARO MODERNOA, 1512tik gaur egunera arte.

Programa honen bidez, proiektuari lotuta dauden 100etik gora adituk beren ikerlanen emaitzen berri emanen digute; hartara, gure kulturarekin eta bizimoduarekin zerikusia duten abangoardiako ebidentzia guztiak biltzen dituen lan-ildo bat erabiliko dute. Izan ere, zuzendaritza hainbaten eskuetan dago, betiere JAUZARREAK gidatua. Ezagutza-corpus bat sortu da, eta, haren emaitza argitalpen-proiektu zabala izanen da, parte hartzen diharduten 40tik gora erakundetako egileak bilduko dituen.

PALEOLITOA.

Europako ertz atlantikora izaniko lehen migrazioen ondorioz, duela 45.000 urtetik gora Europa Atlantikoaren ertzean finkaturiko *Homo sapiens* taldeek atzera egin zuten orain dela 20.000 urte, azken izotzaldiko hotz izugarriak eraginda, eta Bizkaiko Golkoaren inguruan elkartu ziren (Goi Paleolitoaren Aterpea) eta bizirik irauteko ibilbideari heldu zioten. Hartara, alde batetik bestera ibili behar izateaz gain, jarduera intelektual nabarmena ere landu zuten; horrexek talde haien etorkizuna markatu zuen: Europan horma-arte eta arte higigarria garatzea.

Jende horiek muturreko klima-baldintzei aurre egin behar izan zieten, eta, orain dela 15.000 bat urte, temperaturak goxatu zirenean, iparralderagoko lurraldeetarantz jo zuten, behin izotzak urtutakoan landaretza eta fauna baitzeuden. Beraz, ertz Atlantikoa birjendetzatu zuten, garai hartako itsasertzean barrena; hots, gaur egungo Britainia, Gales, Cornualles, Irlanda, Eskozia eta Ingalaterran barrena; garai hartan, kontinentearen luzapena baitziren, eta Europari lurralde handi baten bidez lotuta baitzeuden; hots, egun urpean dagoen Doggerland izeneko lur-masaren bidez.

Duela 9.000 urte inguru, nekazaritza eta abeltzaintza indarrez garatzen hasi ziren Ekialde Erdikoko Ilgora Emankorrean; horren ondorioz, biztanleria handitu zen, eta, horrek eraginda, migrazioak norabide guztietan hasi ziren. Lur haietatik abiatuta, talde txikiak Europako hainbat lurraldetara joan eta Mediterraneoaren itsasertzean barrena finkatu ziren; halaber, ibaiei jarraiki, Europan ekoizpen-ekonomia, horri lotutako bizimoduak eta sinesmenak barneratu ziren. Mugimendu horiek Pirinioetako eskualdera orain 7.000 bat urte iritsi ziren, baina euskaldunak (hasierako migrazioaren ondoriozko

populazioa bat) denbora luzea igaro arte ez ziren iritsi berriekin (indoeuroparrekin) nahasi.

STEPHEN OPPENHEIMER dokt., Oxfordeko Unibertsitatea: *Gizakiaren jatorria: Gizaki antzinakoak eta modernoak, Afrikatik irtetea eta Mendebaldeko Europa birkolonizatzea. Homo sapiens* espezieak gure planetan egindako ibilbide luzeaz mintzatuko zaigu (beste hominido batzuekin batera bizi izan zen bitartean), Afrikatik atera zenetik kontinentearen txoko honetaraino etorri zen arte. **JEAN CLOTTES dokt.**, Pirinio Atlantikoetako Historiaurreko Antzinako gauzen zuzendari ohia. Frantziako Kultura Ministerioan Labar-arteko zientzia-aholkularia: *Xamanismoa Paleolitoko haizuloetan*. Mundu ez-materiala erakutsiko digu; xamanismoaren iruditeria bat birsortu du, eta horrek sormenarekin, horma-artearekin eta arte higigarriarekin duen lotura azalduko digu (arte-adierazpena, identitate-alderdiak, talde bateko kide izatea, hierarkia, boterea eta gizarte-bizitza). **AUDE LABARGE dokt.** eta **JOËLLE DARRICAU** jendearentzat irekitako Historiaurreko Haizuloen Nazioarteko Batzordeko (I.S.C.A.) Espacio Cultural Isturitze Otsozelaia Kultur Gunea: *Goi Paleolitoko kulturen aniztasuna, Izuritzeko adibidetik abiatuta*. Pirinioetako eremuari buruzko ikuspegi orokor bat emanen digute, betiere Aurignac aldiari eta Gravette aldiari dagokiena. Gizarte hura giza harremanez osaturiko sare konplexua izan zen, eta geografia-esparrua bera ere interesgarria da, talde haiek *Homo neanderthalensis* espezieko taldeekin batera bizi izan baitziren; Kanboko taldeekin batera, esate baterako. **BRUCE BRADLEY dokt.** Arkeologia Saila, Exeter-eko Unibertsitatea: *Irtenbide Solutrearra: Ipar Amerika Atlantikoko biztanleen jatorria Pleistozenoan*. Bizkaiko golkotik Ipar Amerikara duela 17.000 urte inguru gertatu zen emigrazioa. **DENNIS STANFORD dokt.**, Antropologia Saila, Paleoindiar eta Paleoekologia Programako zuzendaria eta **MARGARET JODRY dokt.**, Zientzialari laguntzaile nagusia, Paleo Kultura ikerketa-taldea, biak Smithsonian Institution erakundeak, Washington: *Izotzaldiko Europa Ipar Amerikarekin lotzen duen Itsas Tradizio Atlantikoaren froga*. Zehatz-mehatz emanen digute Ipar Amerikako lehen jendeztatzearen berri, betiere indusketek eta aurkikuntzarik nabarmenenak oinarri harturik. **JOSE ANTONIO MUJICA dokt.**, EHU eta **ANDONI TARRIÑO dokt.**, CNIEH, Giza Eboluzioaren Ikerketarako Zentro Nazionala: *Mendebaldeko Pirinioak, ibilbide magdaleniarren bidegurutzeta: mugikortasunaren aztarnak*. Ezagunagoa zaigun geografia bat erakutsiko digute, Magdalen aldiko kultura materialaren kronologia-prozesuaren bitartez. **XABIER PEÑALVER dokt.**, Aranzadi Zientzia Elkarte: *Praileaitz I Behe Magdaleniarrean*. Magdalen aldiari dagokion mailan izaniko azken aurkikuntza garrantzitsuen azalpena eginen du. **THEO VENNEMANN dokt.**, Ludwig-Maximilian Unibertsitatea: *Euskararen substratua Erdialdeko Europan: argudioen laburpena*. Aintzineuskara, Europako lehen hizkuntza Würm Izotzaldiaren bukaeraz gerotik. **PETER BAKKER**, Hizkuntzalaritza Saila, Aarhus Unibertsitatea, Danimarka; **JAVIER GOITIA**, Geografoa: Hizkuntzaren arkeologia eta **STEPHEN AUGUSTINE dokt.**, Kanadako Zibilizazioen Museoa. Mi'kmaq buruzagi tradizionala, Sigenigtog Lehen Nazioa. Batzorde Zientifiko Antolatzailea: STEPHEN OPPENHEIMER, XABI OTERO, J. A. MUJICA eta DENNIS STANFORD.

Helburu zehatz baten adibide praktikoa: OREINA URKIAN KANATA.



Biltzarren programa betetzearekin batera, proiektu ama (ATLANTIAR) bezain egitasmo garrantzitsua garatzen dihardugu, proiektu nagusiaren osagarri eta JAUZARREA izanen denaren erakusgarri; ikerketarako eta zabalkunderako gune eragile bat, alegia.

JAUZARREAK, 2010ean, OREINA URKIAN KANATA proiektua aurkeztu zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, euskal leinu genetikoak *Lehen Nazioen Biztanleen* artean bilatzeko. Hartara, *Euskal baleazaleen ildoei jarraiki. Euskaldunen eta Ipar Atlantikoko Amerikako Jatorrizko herrien ondare kulturala eta genetikoa* izenburuko Nazioarteko Biltzarra 2011ko irailaren 21ean eta 22an egin zen, Bilboko EHuko Paraninfoan (BIZKAIA ARETOA). Hura proiektuaren hasiera izan zen, harreman horien inguruko informazioa eguneratzeko.

ADN-leinuen bilaketa izan da xedea; hau da, euskal jendeak Behe Erdi Aroaz geroztik XX. mendera arte hara eraman zuena. Ez baitugu ahaztu behar hemengo jendearen eta hango natiboen artean sortu zen merkataritza-harreman handi-handia, euskaldunak Amerikako itsasertz atlantikora bidaiak egiten hasi zirenetik; itsasalde hartara gure bakailao-arrantzaleak, balea-arrantzaleak eta larru-tratulariak joan baitziren.

JAUZARREAK duela urte aunitz *Lehen Nazioekin* hasitako harremani jarraipena emateko, hogeita hamar erkidegorekin baino gehiagorekin hasi ginen hizketan: Mi'kmaq, Malisset, Mohawk, Abenaki, Cree, Huron, Innu, Attikamekw, Algonkin eta Ojibwa; haien buruzagiekin eta Batzar Kontseiluekin mintzatu ginen. Jende hura lurralde zabal-zabal batean bizi da: Newfoundland & Labrador, Nova Scotia, New Brunswick, Prince Edward Island, Quebec, Ontario, New England, Pennsylvania, New Jersey, Delaware, Maryland, Virginia, West Virginia, Kentucky eta Aintzira Handien eskualdea.

Azterlan sakona egiten ari gara, arlo askotatik begiratuta (historia, folklorea, arkeologia, antropologia, etnologia, linguistika, biologia eta geologia) eta emaitzak diziplina aunitzen arabera ere interpretatzen ditugu, nolako harremanak eta noizdanik izan diren jakiteko. Informazio-isuri nabarmena lortuko dugu, onuragarria, azterketaren xede diren erkidegoetan berehalako batean aplikatzeko. Era berean, Atlantikoaren bi ertzetako kulturen arteko harremana sendotzeko balioko du.